

Odol bidez transmititutako arrisku biologikoren prebentzioa

1

INFORMAZIO GIDA



SARRERA

Osasun-langileek B eta C hepatitisaren birusarekin edo GIBarekin kutsatzeko arriskua dute, baldin eta zitzadak, ebakiak edo jariakin biologikoak dituzten mukosen zipriztinak jasaten badituzte (esate baterako odola, semena, bagina-jariakinak, likido zefalorrakideoa, pleurala, sinobiala, amniotikoa, peritoneala edo perikardikoa). Odol bidez transmititutako mikroorganismoek ehunen laginak ere potentzialki kutsatu ditzaketela pentsatu beharra dago. Halere, **ez** dira kutsagarritzat hartzen gernua, listua, irazkinak, malkoak, izerdia eta gonbitoak, odolarekin kutsatuta egon ezean.

Potentzialki kutsatutzat deskribatutako horiek bezalako jariakinen eraginpean egonez gero, NEURRI UNIBERTSALAK EDO ESTANDARRAK aplikatu beharko dira.

HORREKIN LOTURIKO ARRISKU NAGUSIAK

Ukipenean egon ondoren, infekzio-arriskua honako faktore hauen arabera izango da:

- Implikatutako patogenoa.
- Kontaktu-mota.
- Kontaktuan izandako odol-kopurua.
- Odolean dagoen birus-kantitatea.

Eragile baten arriskuak zerikusi zuzena du egiten den manipulazio-motarekin.

PREBENTZIO-NEURRIAK

Higiene pertsonalerako arauak

- **Garbitu itzazu eskuak** paziente bati arreta eman aurretik eta ondoren (eskularruak erabili arren) uraz eta xaboiarekin, ur-zorrotadaren azpian, gutxienez hogeit hamar segundotan.
- **Lehor itzazu** erabat eskuak.
- **Babes itzazu zauriak eta ebakiak.** Lan-jarduera hasi aurretik, babes itzazu eskularruekin eskuetako azal-lesioak, eta gainerakoak, apositu iragazgaitzekin (tirita modukoekin).
- **Ez ezazu eraztunik, bitxirik, ... erabili.**


Arau orokorrak

- **Paziente guztien odola**, odolarekin kutsatutako jariakinak eta gorputz-jariakinak **potentzialki kutsagarritzat jo itzazu** GIB, BHB, CHB eta odol bidez transmititutako beste patogeno batzuei begira.
- Ezagutu itzazu lanerako metodoak eta prozedurak.
- Eduki ezazu zure lantokia **garbi** eta txukun. Garbiketa-lanak presarik gabe egin itzazu.
- **Ez erre eta ez jan** agente biologikoak manipulatzeko ari zaren bitartean. Ez jan txiklerik.
- Eduki itzazu **zure txertoak** egunean. Galde ezazu Lan-osasunean.
- **Erabil ezazu** zeregin bakoitzerako egokia den **babes indibidualerako ekipoa**: maskara, betaurrekoak eta eskularruak.
- Ez ezazu laneko arropa etxera garbitzera eraman.

- Errespetatu itzazu agente biologikoak manipulatzeko ari diren lantokietarako **sarbide-mugak**.
- **Bete itzazu segurtasun-arauak**, area bakoitzarentzat zehaztutako prebentzio-neurriak hartuz. Ezagutzen ez badituzu, galde iezaiozu solairuko arduradunari.
- Adierazi iezaiozu zure zuzeneko buruari noiz egiten dituzun arrisku bereziko eragiketak.
- **Istripurik izanez gero**, joan zaitez **Lan-osasuneko** Zerbitzura.

Orratzak eta tresna ebakitzailerik erabiltzea

- Erabil itzazu arreta handiz orratzak eta tresna ebakitzailerik.
- Neurriak hartu horiek erabiltzean eta erabili ondoren, garbitzean eta botatzean.
- **Ez jarri berriro txanorik orratzei**, eta erabili ondoren, ez egin manipulaziorik.
- **Orratzak** eta beste tresna ebakitzailerik edo ziztatzaileak zuzenean **horretarako dagoen edukiontzira bota**.



- Sortutako hondakin-kopururako tamaina egokia duen edukiontzi bat erabili.
- **Eduki ezazu edukiontzia** tresna horiek erabiliko diren ingurutik hurbil.
- **Ez itzazu ontziak erabat bete**, 10 litroko edukiontziak beren 2/3 arte baino gehiago ez bete, eta 1/2 arte txikiak.
- **Ez ezazu sekula utzi tresna ebakitzailerik** gainazal baten gainean abandonatuta.
- **Ez ezazu eraman tresna ebakitzailerik-ziztatzaileak** laneko uniformean.
- Segurtatu ezazu **garbitegira doan arropan** ez dagoela **objektu ziztatzaileak edo ebakitzailerik**.
- Garbitu eta txukundu itzazu objektuak, ekipoak eta abar arrasto biologiko orotatik, desinfektatu, esterilatu edo konpontzera bidali aurretik. Eragiketa hori eskularru erresistenteekin egin ezazu.

Odolarekin edo jariakin biologiko arriskutsuekin kutsatutako hondakinak

- **Ez ezazu hondakinik gorde zure lantokian**.
- **Ez ezazu objektu ebakitzailerik edo ziztatzaileak bota plastikozko poltsetan**.
- Segurta ezazu **objektu ziztatzaileak edo ebakitzailerik** edukiontzia, bete ondoren, **ongi itxia** dagoela jaso dezaten.
- Sartu itzazu **hondakin ebakitzailerik edo ziztatzaileak** -gasak, botatzekoak diren paperezko edo plastikozko produktuak, kotoizko torundak, eta beste batzuk- ongi itxitako **plastikozko poltsa** erresistenteetan. Bota ezazu poltsa, horren bi herenak betetzen direnean. Hondakin arriskutsua baldin bada, horrela identifikatu ezazu.
- **Erabili eskularruak** hondakin biologikoak manipulatzeko.

**HESI-BABESEKO ELEMENTUEN APLIKAZIO
PRAKTIKOAREN ZENBAIT ADIBIDE**

EGOERA KLINIKOA	NEURRIAK
1 Pazientearekin mintzatzea, tantaz tantakoaren abiadura egokitzea, ...	Bat ere ez
2 Pazientea aztertzea odol, gorputz-jariakin edo mukosen kontakturik gabe.	Eskuak garbitzea
3 Pazientea aztertzea odol, gorputz-jariakin edo mukosen kontaktuarekin.	Eskularruak Eskuak garbitzea
4 Odola ateratzea; zain barneko bide periferikoak jartzea.	Eskularruak Eskuak garbitzea
5 Arnasa hartzea; kateterrak sartzea.	Eskularruak (*) Eskuak garbitzea
6 Kutsatutako hondakinak eta materialak erabiltzea.	Eskularruak (**) Eskuak garbitzea
7 Hodia sartzea; arterietatik sartzea; endoskopia; prozedura kirurgikoak eta ez-kirurgikoak, odol-isuriak edo gorputz-jariakinen drainatzeak eraginez (Kasu bakoitza aztertu).	Eskularruak Mantala Maskara Begietako babesa Eskuak garbitzea
(*) Mantala, maskara eta begietako babesa erabili, odol edo jariakinen zipriztinik aurreikusten bada. (**) Mantala, maskara eta begietako babesa erabili, baina bakar-bakarrik pazienteak erabilitako materialen kutsadura handia badago (adib. maindireak), edo hondakinen zipriztinik sortzea litekeena bada.	